

SECCION AMENA.

Leoya ta aizeria.

Ipuia.

Gizenduta zegoan leoi batek, siniserazo nai zuen eririk zegoala, ta erakarten zituen bera ekustera beste abere ta lauõnekoak, zalako guzien buru edo erregea.

Ordea eltzea ta irenstea guzia bat zan.

Eldu zan leiza atazrira asko jakiña zan aizeri bat.

Diotsa oni leoyak bere entzutegi edo oetik:

—Atoz, aurrera.

—Ez ni, eranzun zion aizeriak. Dakustaz sartzen diradenen oñatzak, ez ordea irtetzen dutenenak.

Ala gorde zuen burua asko jakiñez ta begiratu izanaz.

Ipui onek erakasten du, bes-teen kalte, irrisku ta gaitzetatik ikasi bear degula gure gordebi-dea.

Orregatikan:

Besteen gaitzetan ipiñi begiak
Ta ikusi nondik diran etorriak.

Vicenta Moguel eta Elguezabal.

CEÁMAKO SAKRISTAUÉ ETA ONTZA

Ipuia.

Auñen da langitëa eiten diuna ontzak; esaten zion bein bateen, Ceamako sakristauék, bertako Erretoré jaunei.

«¿Zer gertatzen dek bá?»

«¿Zer gertatzen dan? Gaueró gaueró jachitzen da ontza bobedatetik, eráten do olioá, eta dao

Elizea illun, eta argi baé Sakramentu santuë.»

«Kuisidadea dek oišere. Esan diat leene milla bider, tiroóz botatzeko ontz deabru ori, baño ire temea dala mediante zeukau geieneën Sakramentuë argi-baé, eta oliotan bakarrik ber-rriz malkirrot eraingo diok Elizéri: gaur gauen baá, eonai Elizan arma artuta bai, eta ontza datorreneën tiroóz botáazak.

»Esan da ein; badao gure sakristaué, badator ontza gauberdi aldera, eta jartzen da lanpara gañeën; ordun, kaskabela baño pozikágo, jasotzen dó katuún arma, baño ontzakin batera artzen do apunteurín altara nau-sin zeon kuützea.

»Ezion tiratu nai iñundik iñora kuützeri eta asten zaio korutik eskuúkin kiñu eñez, eta esanez: «Chit, chit, alde ein beza, alde ein beza: baño kasoikeé ezion eiten kuütze santúk, eta ontzak iges ein etzeion, tiratzen do eta tiroon otsákin ikátuik, badijoa ontza bere zulora eta Santo-Kristók jotzen do lurre. Jun zan sakristau iñoza zer gertau ote zan, eta Jesus kuu-izipikatué milla chiki eñik ikusi zoónen, esan menzion beitatik negarra zeriola:

Neré Jesukristo Jauné
Zeuké kulpak baituzú,
Gizona kolerán ikusi ez kero
¿Zertako alde ein eztezú?

Ceamako-a ez dan batek.

XVI ^{garren} somaketaren askantza:

BATA.